

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

4282

178/2012 DEKRETUA, irailaren 18koa, Etxepare Euskal Institutuaren kide batzuk kargutik kentzeko eta kide berriak izendatzeko dena.

Apirilaren 20ko 3/2007 Legearen bitartez Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute sortu eta arautu zen, euskara eta euskal kultura Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo sustatzeko, hedatzeko eta proiektatzeko. Horretarako, hizkuntza ofizialetako edozein erabiliko da, bai eta bidezko adierazpideak, euskarriak eta bitartekoak ere.

Etxepare Euskal Institutua berezko nortasun juridikoa duen zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa sortu zen, Kultura Sailari atxikia. Aipatu apirilaren 20ko 3/2007 Legearen arabera, haren organo nagusiak Patronatua, Zuzendaritza Kontseilua eta Zuzendaria dira.

Lege horren beraren 7.2 artikulua xedatzen duenez, Patronatuko kideak izango dira, besteak beste, euskal letrak, filologia eta kultura ordezkatzeko dituzten hamabost kide, eta kide horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluak izendatuko ditu. Horretaz gainera, 7. artikuluko 3. paragrafoan zehazten du berezko kideak ez direnak lau urterako izendatuko direla, eta, epe hori igarotakoan, beste lau urterako ere izendatu ahal izango direla berriz, baina beste behin bakarrik.

Etxepare Euskal Institutuaren Antolakuntza eta Jarduera Araudia onartzen duen maiatzaren 13ko 88/2008 Dekretuak, bestalde, II. kapituluaren xedatzen du Institutua kide anitzeko bi organo –Patronatua eta Zuzendaritza Kontseilua–, eta pertsona bakarreko organo batek –Zuzendaria– osatuko dutela, eta horien osaera azaltzen du.

Maiatzaren 13ko 88/2008 dekretu horrek, 10.2 artikuluan, dio Euskadiko Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluak izendatuko dituela euskal letra, filologia eta kultura ordezkatzeko dituzten Patronatuko kide ez-berezkoak, lehendakari exekutiboaren proposamenez.

Horretaz gainera, 10. artikuluko 4. paragrafoan zehazten du berezko kideak ez direnak lau urterako izendatuko direla, eta, epe hori igarotakoan, beste lau urterako ere izendatu ahal izango direla berriz, baina beste behin bakarrik. Epe hori amaitutakoan ere jarraituko dute beren funtzioak betetzen, harik eta haien ondorengo kide berrien izendapenak indarrean jartzen diren arte.

Hori guztua kontuan hartuta, Etxepare Euskal Institutuaren Patronatuko kideak izendatzeari ekin zitzaion ekainaren 24ko 120/2008 Dekretuaren bidez eta, izendapenetik lau urteko epea igaro denez eta, gainera, Eusko Ikaskuntzaren ordezkariak aldatu direnez, bidezkoa da berezkoak ez diren Patronatuko kideak berritzea eta haien izendapena egitea.

Horrenbestez, ekainaren 30eko 7/1981 Jaurlaritzaren Legean eta Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute sortu eta arautzen duen apirilaren 20ko 3/2007 Legearen 7. artikuluan – Institutuaren Patronatuaren osaera arautzen duena– ezarritakoarekin bat, Kulturako sailburuaren proposamenez, Gobernu Kontseiluak 2012ko irailaren 18ko bileran aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Honako hauek Etxepare Euskal Institutuaren Patronatuko kide ez-berezko kargutik kentzea:

1.– Euskal letren, filologiaren eta kulturaren ordezkariak:

– M.^a José Olaziregi Alustiza andrea

– Marta Monfort Ayestaran andrea

– Filgi Claverie Michelena jauna

– Miren Jaio Atela andrea

– Josu Erguin Aramburu jauna

– Jon Bagües Erriondo jauna

– Itziar Idiazabal Gorrotxategi andrea

– Aurkene Alzua Sorzabal andrea

2.– Eusko Ikaskuntzaren ordezkariak:

– José María Muñoa Ganuza jauna

2. artikulua.– Honako hauek berritzea Etxepare Euskal Institutuaren Patronatuko kide ez-berezko karguan, euskal letren, filologiaren eta kulturaren ordezkari moduan:

– Jean Etchegoien Elissagaray jauna

– Koldo Martínez Urionabarrenetxea jauna

3. artikulua.– Honako hauek izendatzea Etxepare Euskal Institutuaren Patronatuko kide ez-berezko:

1.– Euskal letren, filologiaren eta kulturaren ordezkariak:

– Daniel Angel Castillejo Alonso jauna

– Idoya Zabaleta Morán andrea

– ñaki Salvador Gil jauna

– Koldo Tapia Garmendia jauna

– José Antonio Fernández Gutiérrez

– M.^a del Coro Navarro Echeverria andrea

– Eva María Salaberria Artano andrea

– Francisco Valderrama Arrieta jauna

2.– Eusko Ikaskuntzaren ordezkariak:

– Ignacio María Dorronsoro Plazaola jauna

2012ko irailaren 25a, asteartea

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen 2012ko irailaren 18an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.